

## MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ASTEA

Europa osoan irailaren 16tik 22ra ospatzen da Mugikortasun Jasangarriaren Astea. Mugikortasun jasangarria energia gutxiago eta ingurumen inpaktu txikiagoa sorrarazten duen mugikortzeko modua da eta aurtengo leloarekin “Partekatuz gero, urrutirago iritsiko gara” Europar Komisioak mugikortasun garbia, partekatua eta intelijentea sustatu nahi du, autoaren erabilera partekatuz.

Tolosaldeako udalek aste honetan jarduerak hauek antolatu dituzte Mugikortasun Jasangarriaren alde aldarrikapena egiteko, Ibarra esaterako:

1. Uzturpe Ikastolako ikasleak irailaren 22an ere, goizez, oinez egingo dute ikastolako joan-etorria. Horretarako HH eta LHko haur guztiak irakasleekin plazan topatuko dira (baita autobusez joaten direnak ere), eta bertatik oinez joango dira guztiak elkarrekin.
2. Datorren ostiralean, irailak 22, arratsaldez, **Tolosa eta Ibarra arteko Bizibira** ospatuko da. Ibarra eta Tolosako ikastetxeak lotuko dituen bizikleta bira egingo da, ikastetxeetara joateko eredu jasangarriagoak daudela frogatzeko asmoz.

Irteera 16:30 Ibarra plazaetik. 17:00 Samaniego 17:15 Herrikide 17:30 Laskorain 18:00 Zumardi haundia.

Zumardi haundian merendola eta festa bat egingo dira, umeentzako jolasekin. Puzgarriak eta joku desberdinak egongo dira.

Mugikortasun jasangarriko ekimen bat ere sarituko da. Aurten, Ibarra eta Samaniego Ikastetxeak aurrera eramaten duten ekimena “oinuz bus” sarituko dira.

**HERRITAR GUZTIAK GONBIDATU NAHI ZAITUZTEGU BIZIBIRA HONETAN PARTE-HARTZERA. ZATOZTE!!!**